

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroak CRISS berrikuntza proiektu europarrean parte hartuko du gaitasun digitalen hobekuntza eta ziurtapenerako

*Ziurtagiri digitala ikastetxe publikoetako DBH-4ko ikasleei zuzenduta dago*

Astelehena, 2018.eko maiatzak 21

Nafarroako Gobernuo Hezkuntza Departamentuak CRISS proiektuan (Certificación of digital competences in Primary and Secondary Schools) parte hartuko du 2018-2019 ikasturtean beste erakunde hauekin batera: Halsingland Education Association (Suedia), Regional Directorate of Primary and Secondary Education of Crete (Grezia), Escola Pia de Catalunya, Croatian Academic and Research Network CARNet (Kroazia), Andaluziako Junta, Fondazione Centro Studi

Villa Montesca (Italia) eta Inspectoratul Scolar Juedetean Arad (Errumania). Ekimen honetan parte hartu nahi duten ikastetxe publikoek Departamentuarekin harremanetan jarri beharko dute maiatzaren 23tik ekainaren 11ra bitartean. Bestalde, Departamentuak Bigarren Hezkuntzako 10 ikastetxe, 30 irakasle eta 500 ikasle hautatuko ditu, irailetik ekainera egingo den proiektuaren pilotatze presentzialerako.

CRISS aukera ezin hobe da Horizon2020 programari atxikitako berrikuntza proiektu europar batean parte hartzeko, erreferentziatzeko esparrua eskaintzen baitu ikasleen gaitasun digitalerako, baita gaitasun hori garatzeko ikasketa-agertokiak, online plataforma bat eta datuak aztertzeko sistema bat ere, metodologia aktiboak eta gaitasunen araberako lanari lehentasuna emanez. Horretarako, teknologia ikasketa-prozesuak hobetzen dituen tresna aberasgarritzat integratzea proposatzaren du.

Ikasle bakoitzak sortutako portfolio digitalean proiektuan egin beharreko lanak zehaztuko dira, 5 esparru hauen inguruan: herritartasun digitala, komunikazio eta lankidetzeta digitala, informazioaren bilaketa eta kudeaketa digitala, eduki digitalaren sorkuntza eta arazo digitalen konponketa. Honela, nortasun digitala babesten irakatsi nahi zaio ikasleari,



Europako hainbat herrialdeetako ikasleek parte hartuko dute CRISS proiektuan.

ikasgela barruko nahiz kanpoko portaerari eta ongizateari eragin ahal dioten teknologiaren erabilera okerrez ohar dadin, egile-eskubideak, sarean dagoen materiala erabiltzeko baimenak, programazioa eta abar barne hartuz.

Pilotatze presentzialerako hautatzen diren ikastetxeek prestatzaile/erraztaile baten laguntza izanen dute plataforma nola erabiltzen den ikasteko, ikasketa-agertokiak hautatzeko eta agertoki horiek irakasle bakoitzaren eta ikasle-talde bakoitzaren beharretara egokitzeko. Bestetik, CRISS proiektua pilotatu nahi duen ikastetxeak ez du DBH-4ko irakasle guztiekin egin beharrik izango; aski izango da 3 irakasle izatea ikasturte bukaeran ikasleen gaitasun digitala ziurtatzeko behar diren alor eta azpigaitasun guztiak estaltzeko.

Ikastetxeen eta irakasleen inplikazioa nahitaezkoa da proiektua arrakastatsua izan dadin, eta hori lehendabiziko pausoa besterik ez da izango, Bigarren Hezkuntzan gaitasun digitalen garapen sistematikoagoa eta dagokien ebaluazioa egiteko bideratuko den lanerako, Kataluniako Universitat Oberta delakoak garatutako erreferentziatzko esparruari esker, izan ere, hauxe da, DigComp kodean eta Europako erreferentziatzko beste esparru batzuetan oinarrituta, ikasleen gaitasun digitala garatzeko dagoen herritarrei nahiz irakasleei zuzendutako erreferentziatzko lehen esparrua eta bakarra.

### **Izena emateko epea**

2018/2019 ikasturtean abiaraziko den CRISS proiektuan parte hartu nahi duten ikastetxeek Departamentuarekin harremanetan jarri behar dute [proyectoste@educacion.navarra.es](mailto:proyectoste@educacion.navarra.es) eta [integratic@educación.navarra.es](mailto:integratic@educación.navarra.es) helbide elektronikoen bitartez, maiatzaren 23tik ekainaren 11 bitartean, biak barne.

Departamentuan, hamar zentro pilotuak hautatzeaz arduratuko den Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzuak kontuan izango ditu, besteak beste, ikastetxe bakoitzean proiektua pilotatzeko prest dauden irakasleen kopurua, parte hartuko duten ikasleen kopurua eta teknologiaren integrazioan bildutako alde zuzeneko esperientzia.

Halaber, Hezkuntza Departamentuak bi aldeek bete beharreko konpromisoak zehaztuko dituen lankidetzak akordioa sinatuko du. Hartara, Departamentuak laguntza eskainiko die ikastetxeei pilotatze-lana egiteko, Chromebook bana emango die DBH-4ko bi taldeko, eta Italiarako prestakuntza-bidaia ordainduko dio proiektuaz arduratzen den irakasleari, ikastetxearen konektibitate ona bermatu eta hiru hizkuntzatan (ingeleza, gaztelania eta euskara) ikasteko agertokiak eskaintzeaz gain.